



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urriaren 7a

107. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, zerga batzuetan behin-behinekoz errekarquak ezartzekoa. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modulu ekonomikoak alda ditzan eta toki-entitateekiko hitzarmenak zabal ditzan, haur-eskoletan eta derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe publikoetan COVID-19aren aurkako indartze-neurriak finantzatzeko. Hezkuntza Batzordeak onetsia (3. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideen hautaketa. Hautagaiak aurkezteko epea luzatzea (4. or.).

—Arauk, Kontseilu Europarrean 2020ko uztailearen 21ean onetsitako Europako funtsetan nahiz Espainiako Gobernuari proposatuko zaizkion kasuko proiektuetan Nafarroak parte hartu ahal izateari buruzko Osoko Bilkura monografikokoak (4. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—9/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez ezartzen baita, Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko osasun arloko prebentzio eta euste neurriak ez betetzeagatik aplikatu beharreko zehapen araubidea. Osoko Bilkurak baliozkotu du (6. or.).

—10/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez neurri batzuk onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak. Osoko Bilkurak baliozkotu du (6. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zerga batzuetan behin-behinekoz errekarquak ezartzekoa.

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko urriaren 1ean egindako bileran, erabaki du aintzat ez hartzea Zerga batzuetan Behin-behinekoz Errekarguak ezartzeko Foru Lege proposamena, zeina Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu baitzuen eta 2020ko ekainaren 24ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modulu ekonomikoak alda ditzan eta toki-entitateekiko hitzarmenak zabal ditzan, haur-eskoletan eta derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe publikoetan COVID-19aren aurkako indartze-neurriak finantzatzeko.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2020ko irailaren 23an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modulu ekonomikoak alda ditzan eta toki-entitateekiko hitzarmenak zabal ditzan, haur-eskoletan eta derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe publikoetan COVID-19aren aurkako indartze-neurriak finantzatzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du modulu ekonomikoak alda ditzan eta toki-entitateekiko hitzarmenak zabal ditzan, haur-eskoletan eta derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe publikoetan COVID-19aren aurkako indartze-neurriak finantzatzeko, itunpeko irakaskuntzan egin den bezala.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du hausnar dezan garbiketa- eta desinfekzio-jarraibideak malgutzeaz landa-ikastetxe txikiei dagokienez, ikasle-kopuruaren arabera".

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideen hautaketa.

HAUTAGAIK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak idazki bat aurkeztu du, zeinean eskatzen baitu luza dadin Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak aukeratzeko hautagaitzak aurkezteko epea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, hona erabakia:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak aukeratzeko hautagaitzak aurkezteko epea 2020ko urriaren 14ko 12:00ak arte luzatzea (10-20/ELC-00002).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Arauk, Kontseilu Europarrean 2020ko uztailaren 21ean onetsitako Europako funtsetan nahiz Espainiako Gobernuari proposatuko zaizkion kasuko proiektuetan Nafarroak parte hartu ahal izateari buruzko Osoko Bilkura monografikokoak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Onestea honako Osoko Bilkura monografiko honen eztabaida antolatzeko arauak: "Kontseilu Europarrean 2020ko uztailaren 21ean onetsitako Europako funtsetan nahiz Espainiako Gobernuari proposatuko zaizkion kasuko proiektuetan Nafarroak parte hartu ahal izateari buruzkoa". Hona arau horiek:

"1. Eztabaida hasiko da Osoko Bilkura monografikoa proposatu duen talde parlamentarioaren eledunaren mintzaldiarekin, gehienez ere hogei minutu iraunen duena.

Ondoren, eskatzen duten gainerako talde parlamentario edo foru parlamentarien elkartearen eledunak mintzatuko dira, eta denbora-tarte bera izanen dute. Mintzaldien hurrenkera kideen kopuruari begira ezarriko da, gehien dituztenetik hasi eta gutxien dituztenekin bukatzeko.

Aurreko txanda bukatuta, Nafarroako Gobernuaren ordezkari bat mintzatzen ahalko da, eztabaidagai diren gaien inguruko bere jarrera azaltze aldera, iraupen berarekin.

2. Mintzaldi horiek bukatuta, bilkura ordubetez etenen da, eta Mahaiari erabaki proposamenak aurkezteko epe bat irekiko da. Talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak gehienez ere bost erabaki proposamen aurkezten ahalko ditu, eztabaidagaiarekin zuzeneko zeriku-

sia izanen dutenak. Proposamenak, egiaztapen elektronikoarekin eta zenbatuta, posta elektronikoaren bidez bidali beharko zaizkio Zerbitzu Orokorretako burutzari bilkura eten eta hamabost minutuko epean, eta horrek, bere aldetik, Mahaiko kideei emanen dizkie.

Jarraian, ondoko hamabost minutuetan, Mahaia proposamenak onartuko ditu, eta talde parlamentarioen edo foru parlamentarioen elkartearen eledunei helaraziko dizkie, zeinek ordubete izanen baitute proposamenak aztertzeko.

3. Bilkura berriro hasten denean, onarturiko proposamenak batera defendatuko dira, gehienez ere hamar minutuz, 1. arauan ezarritako eztabaida-hurrenkerari jarraituz, eta eledunek beren iritzia emanen dute, halaber, gainontzeko talde parlamentarioek edo foru parlamentarioen elkarteak aurkezturikoen inguruan.

Eztabaidan zehar, lehendakariak izapidera onartzen ahalko ditu in voce zuzenketak, baldin

eta haien xedea errakuntza eta akats teknikoak zein terminologiakoak edo gramatikakoak zuzentzea baldin bada. Gainerakoan, soilik inongo talde parlamentarioek edo foru parlamentarioen elkarterik aurka azaltzen ez bada onartzen ahalko dira zuzenketa horiek.

4. Proposamenen eztabaida amaiturik, 1. arauan adierazi aurkezpen-hurrenkerari jarraituz bozkatuko dira. Talde parlamentario edo foru parlamentarioen elkarte bakoitzak egindako proposamenak batera bozkatuko dira. Halere, edozein eledunek hala eskaturik, aparte bozkatzen ahalko dira".

2. Agintzea arau horiek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen (10-20/CDP-00004).

Iruñean, 2020ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

9/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez ezartzen baita, Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko osasun arloko prebentzio eta euste neurriak ez betetzeagatik aplikatu beharreko zehapen araubidea.

OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko urriaren 1ean egindako bileran, baliozkotu zuen 9/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez ezartzen baita, Nafarroako Foru Komunitatean, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko osasun arloko prebentzio eta euste neurriak ez betetzeagatik aplikatu beharreko zehapen araubidea. Foru Lege-dekretua argitaratu zen 2020ko irailaren 17ko 211. eta 2020ko

irailaren 21eko 213. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2020ko irailaren 24ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez neurri batzuk onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak.

OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko urriaren 1ean egindako bileran, baliozkotu zuen 10/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez neurri batzuk onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak. Foru Lege-dekretua 2020ko irailaren 17ko 211. Nafarroako Aldizkari Ofizialean

eta 2020ko irailaren 24ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

